

UDAL ORDENANTZA; GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALAK ARAUTZEKOA.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.....	1
1. artikulua.- Helburua.....	1
2. artikulua. Aplikazio-eremua.....	2
3. artikulua.- Kanpoan uzten diren jarduerak.....	2
4. artikulua.- Ordutegiak eta funtzionamendu-arauak.....	3
II. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA.....	4
5. artikulua.- Aurretiazko komunikaziori atxikitzea.....	4
6. artikulua. Obra-lizentzia.....	5
7.-. artikulua. Baldintzak betetzen diren egiaztatzea.....	5
8. artikulua.- Jarduteko eskubidea iraugitzea.....	5
9. artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguria.....	6
III. KAPITULUA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA.....	6
10.artikulua.- Ikuskaritza-jarduera eta kontrolekoa.....	6
11. artikulua.- Administrazio-ahalmenak.....	6
12. artikulua.- Jarduerak debekatzea eta etetea.....	7
13. artikulua.- Lokalak ixtea eta prezintatzea.....	7
14. artikulua.- Arau-hausteak.....	7
15. artikulua. Zehapenak.....	9
16. artikulua. Erantzuleak.....	9
47. artikulua. Preskripzioaz.....	10
18. artikulua.- Behin-behineko neurriez.....	10
19. artikulua. Bitartekaritza eta zehapenen ordezkioak.....	10
XEDAPEN GEHIGARRIA.....	11
XEDAPEN IRAGANKORRA.....	11
AZKEN XEDAPENA:.....	11
1. ERANSKINA.....	12
GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALEK BETE BEHARREKO EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK.....	12
1. BALDINTZA ARKITEKTONIKOAK.....	12

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.- Helburua.

1.-Ordenantza honen helburua hauxe da: aisialdiko lokalek, segurtasun eta higiene aldetik beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak errespetatzeko, bete behar dituzten betekizunak testu bakar batean jasotzea eta, lokalok darabiltenentzat eta etxe barruko bizilagunentzat, gogaikarritasun eta arrisku-mota guztiak saihestea.

2.- Ordenantza honen ondorioei dagokienez, aisialdirako lokaltzat hartuko dira, diru-irabazi asmo barik, pertsonak, bereziki gazteak, beraien aisi denboran eta topaleku legez, elkartzeko eta batzeko erabiltzen dituzten barrutiak, baina merkataritza-entitateak eta elkarte gastronomikoak egiten dituzten jarduerak izateke eta udalak hala sailkatzen dituenak, ordenantza honek jasoko dituen gainontzeko betebeharrak betetzen dituztenean.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Aurreko artikuluan sartzen diren lokal eta instalazio guztiak ordenantza hau betetzera lotuak daude, betiere, Eibarko udalerriaren esparru barruan badihardute eta horko titularrak edo antolatzaileak pertsona fisikoak edo juridikoak diren kontuan hartzeke, irabazi asmorik izan ez jarduera sarri edo noizbehinka egiten den

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

Aurreko artikuluan sartzen diren lokal guztiak ordenantza hau betetzera lotuak daude, betiere, Eibarko udalerriaren esparru barruan badihardute eta titularrak edo antolatzaileak pertsona fisikoak edo juridikoak diren, irabazi asmorik gabekoak diren eta beraien jarduera sarri edo noizbehinka egiten den kontuan hartzeke.

3. artikulua.- Kanpoan uzten diren jarduerak.

Ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira familia-ospakizunak edo izaera pribatu hutsekoak. . Lan, erlijio, politika, edo sindikalgintza arloko jarduerak egiten diren lokalen kasuan, beste araubide zehatzagorik izan ezean, subsidiarioki ordenantza honen xedapenen arabera arautu daitezke.

Arautze honetatik espresuki kanpo gelditzen dira ostalaritzako jarduerak, hala nola taberna-, kafetegia- edo jatetxe-zerbitzuak, gastronomia-txokoak eta jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak ezartzen dituen azaroaren 16ko 296/1997 dekretuan aipatzen diren jarduera guztiak ere.

4. artikulua.- Ordutegiak eta funtzionamendu-arauak.

1.- Ordenantza honetan arautzen diren aisialdirako lokalak gaueko 10etatik aurrera itxi egingo dira eta ez dute inongo jarduerarik egingo, ostiral, zapatu eta jaiegun bezperetan izan ezik.

Ordenantza honetan arautzen diren aisialdirako lokaletan, ez da izango jendea bilduko lukeen inongo jarduerarik goizeko 10:00ak baino lehen.

Ordutegia ez errespetatzeagatik, zarata ateratzeagatik edo funtzionamendu-arauak ez betetzeagatik salaketa egiaztatuak egonez gero, ordutegi berezia ezarri ahal izango zaio arauak hautsi dituen lokalari.

2.- Funtzionamendu-arauak:

- Jarduera lokal barruan bakarrik gauzatuko da; ez dago baimenik jarduera hori kalean edo bide publikoan gauzatzeko.

- Ez da aterako elkarbizitza eta auzoko jendearen atsedena apurtuko duen zaratarik kalean eta beste gune publiko batzuetan (plazak, parkeak...).

- Ezingo da gune publikoa okupatu aulkiekin, mahaiekin eta antzekoekin; jendea ere ezingo da bildu edo batu lokalaren kanpoko aldean; ibilgailu-garbiketarik edo konponketa bezalako jarduerarik edo bestelakorik ere ezingo da burutu.

-Lokalera sartzekoan edo handik irteterakoan, zaratekin kontu handia eduki behar da oihuka, kantuan, txistuka edo zarata aterako duen beste ezertan aritzeke.

-Lokalaren kanpoko aldea eta inguruak behar bezain garbi eduki behar dira eta lokalean egindako jardueraren batean erabilitako gauzak edo bertan sortutako zaborrak ez dira botata utziko.

- Debekatua dago eta ezin izango da burutu gazteentzako lokalen jarduerarekin lotuta ez dagoen ekintzarik, hala nola: edozein motatako produktuen salerosketa, jarduera gogaikarriak egitea, etab.

- Debekatua dago eta ezin izango da produktu sukoiak biltzea.

- Debekatua dago eta adin txikikoek ezin izango dute edari alkoholunik kontsumitu lokal hauetan.

- Debekatua dago eta ezin izango da sukalderik, laberik, frijigailuak edota plantxarrik jarri, ez eta kea araztea edo eraztea behar duen beste etxetresnarik ere, lokalak kea ateratzeko hodi eksklusiborik ez badu.

- Debekatua dago eta ezin izango da lokalean 75 dB(A)tik gorako igorpen bolumena duen telebista, irrati edo musika-aparaturik ipini, lokalak horretarako behar den

bezalako isolamendu akustikorik ez badu.

- Debekatu egingo dira inguruan bizi diren auzokoentzako gogaikarriak diren jarduerak edo higiezinaren segurtasuna arriskuan jartzen dutenak.
- Zeharo debekatuta dago material piroteknikoa erabiltzea.
- Ezingo da gainditu I. Eranskinean zehazten den aforoa edo okupazioa.

II. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA.

5. artikulua.- Aurretiazko komunikaziori atxikitzea.

Jardueran aritu aurretik, udaletxean ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Jarduera sailkatuan aritzeko aurretiazko komunikazioa.
- **Memoria edo txosten teknikoa, horretarako eskumena duen profesional gaitu batek egindakoa. Ingurumen txostenaren edo memoriaren edukia II. Eranskinean zehazten dena izango da.** I. Eranskinean zehazten diren baldintzak bete egiten direla egiaztatu behar da. Baldintza horiek jardueran aritzerakoan errespetatu beharreko neurri zuzentzailatzat joko dira.
- Obra proiektudunak egin badira, orain arte esandakoez gain, likidazioa eta obraren amaierako ziurtagiria ekarri behar dira.
- Erantzukizun zibilaren aseguru-poliza duela frogatzen duen egiaztagiria, 9. artikuluan aipatzen den edukiarekin.

Komunikazioa eta ziurtagiria, biak, PEGORAN eta udal webgunean eskura dauden eredura egokitu behar dira (www.eibar.net).

Aurretiazko komunikazioan lokalaren arduradun eta jardueraren titular legez diharduten gazteen datuak azaldu behar dira. Ezingo dira izan adin txikikoak. Erabiltzaileak adin txikikoak izango balira, adin nagusiko beraien legezko tutoreen datuak sartuko dira; tutore horiek izango dira jardueraren titular moduan agertuko direnak.

Aurretiazko komunikazioak, orokorrean, jardueran aritzeko baimena emango du aurkezten den egunetik bertatik, betiere, udalari atxikitzen zaizkion egiaztatze-ikuskatze- eta kontrol-eskumenen kaltetan izan gabe. Udalak, bere aldetik, neurri zuzentzaileak hartzeko agindua eman dezake edo, Ordenantza honetan edo aplikagarria den gainerako arauak ezarritako baldintzak ez direla bete egiaztatuz gero, baita jarduera ixteko agindua eman ere.

6. artikulua. Obra-lizentzia.

Lokala egokitzeko edozein eratako obraren bat egin beharko balitz, egin nahi den obra horri dagokion lizentzia eskatu behar da.

7.- artikulua. Baldintzak betetzen diren egiaztatzea.

1.- Ikuskaritza-bisita egin ondoren, aisialdirako lokal horrek Ordenantza honetako betebeharrak edo baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzeko txostenean honakoak jasoko dira: lokalaren kokapena, jardueraren titularrak, gehieneko aforoa edo edukiera baimendua eta derrigorrez betebeharreko baldintzak edo neurri zuzentzaileak. Neurri zuzentzaileok, Ordenantza honetan agertzen direnak izango dira gutxienez

2.- Lokaletako titularrek derrigorrez eduki behar dute eskura edo ikusteko moduan udal administrazioak luzatutako dokumentua, egiaztapenari dagozkion datuak jasotzen dituen alegia.

8. artikulua.- Jarduteko eskubidea iraungitzea.

Lokalak sei hilabete jarraian egiten baditu inongo jarduerarik egiteke, zein delarik ere arrazoia, eten horrek jardueran aritzeko baimenaren iraungitzea ekarriko du.

Berrero jarduerari ekin nahi izanez gero, hasi baino lehen aurretiazko komunikazio berri bat aurkeztu behar da. Lokalaren baldintzak eta aplikatzekoa den araudi teknikoa aldatzen ez badira, agiri edo dokumentu teknikoak ez dira berrero aurkeztu beharko.

9. artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguru.

Lokalek erantzukizun zibileko aseguru poliza izan behar dute eta poliza horren arrisku gutxieneko estaldura 100.000 €koa izango da lokalean gerta daitekeen edozein gertakizuni aurre egiteko eta lokalaren erabiltzaileak eta beren ondasunak eta baita hirugarrenak ere babesteko.

III. KAPITULUA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA.

10.artikulua.- Ikuskaritza-jarduera eta kontrolekoa.

Lokalen eta instalazioen ikuskapena, eta bertan burutzen diren jarduerena, Udaltzaingoak burutuko du eta, espezializazio teknikoa behar den kasuetan, ikuskapen gaikuntza duten funtzionarioek ere burutuko dute. Azken horiek agintaritzaren agentetzat hartuko dira

Helburu horretarako, udaleko zerbitzu teknikoek, behar besteko ikuskaritzak egingo dituzte instalazioak ondo funtzionatzen ote duten egiaztatzek eta, halaber, ezarri zaizkien neurri zuzentzaileak eta Ordenantza honen I. eranskinean jasotzen diren baldintzak betetzen diren ikusteko.

Lokalen eta instalazioen titularrek edozein unetan sartzan utziko diete ikuskaritza eta kontrola egiteko akreditazioa duten pertsoneri, eta derrigortuta daude, baita ere, ikuskaritza-lanetan eskatzen zaien laguntza ematera.

11. artikulua.- Administrazio-ahalmenak.

Ikuskaritza horiek administrazioak berak egingo ditu ofizioz edo parte batek salaketa idatzia jarri eta gero egindako eskabidez. Ahalmen hauek aitortzen zaizkie ikuskaritza egingo dutenei:

- a) Lokalak eta instalazioak ikuskatzea.
- b) Lokaletan burutzen diren jardueren eta ekintzen kontrola.
- c) Debekatzea eta etetea 12. artikuluan jasotzen diren jarduerak, eta Ordenantza honetan aurreikusten diren gainerako segurtasun neurriak hartzea.
- d) Ordenantza honetan sailkatzen diren arau-hausteak zigortzea.

12. artikulua.- Jarduerak debekatzea eta etetea.

Eskumena duten administrazio-aginteez debekatu edota bertan behera utz ditzakete lokalotako jolas-jarduerak, baldin eta:

- a) Jarduerok komunikaziorik gabeko lokaletan edo instalazioetan egiten badira edo eska dakizkiekeen segurtasun, osasungarritasun edo higiene baldintzak betetzen ez badituzte.
- b) Jarduerok derrigorrezko baimenik ez dutenean edo emandako baimenean eskatzen zaizkien betekizunak betetzen ez dituztenean.
- c) Pertsonendako eta ondasunendako benetako arriskua dagoenean.
- d) Bizilagunen eskubideak kaltetzen dituzten desorden larriak gertatu edo gertatuko direla aurreikusten denean (zarata larregi, zikinkeria...).

13. artikulua.- Lokalak ixtea eta prezintatzea.

Agintari aginpidedunek, aurretiazko komunikaziorik ez duten lokalak eta instalazioak itxi eta prezintatu egin ditzakete, aurretik, interesatuei entzun eta gero. Halaber, agintari aginpidedunek neurriak har ditzakete, pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo osasungarritasun publikoa eta bizilagunek ingurumen egokia izateko duten eskubidea arrisku larrian jarri ditzaketen lokalen eta instalazioen aurka, lokalok eta instalaziook aurretiazko komunikazioa edo funtzionatzeko baimena izan arren.

Arrisku hori berehalakoa dela sumatzen bada, neurri horiek interesatuari entzun gabe har daitezke.

14. artikulua.- Arau-haustea.

Administrazio arau-haustetzat hartuko dira ordenantza honen xedapenen kontra doazen ekintza edota egin ezekoak eta arau-hauste arinak izango dira Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 legearen 109.a) artikulua xedatzen duenaren arabera, hau da, derrigorrezkoa den aurretiazko komunikaziorik gabe edo ezarritako baldintzak bete gabe jarduerak burutzea. Pertsonengan, ondasunetan edo ingurugiroan eragin txikia dutelako, arintzat hartuko dira e. Zehaztuz, arau-

haustetzat hartuko dira azpikoak:

- a)** Aurretiazko komunikaziorik egiteke edo jakinarazitako baldintzak bete gabe, aisialdiko lokalak irekitzea edota berauen izaera eta jarduera aldatzea.
- b)** Zarataren kontrolerako, Ordenantza honetan eta 213/2012 Dekretuan ezarritako mugak gainditzen dituen zarata-igorpena.
- c)** Ordenantza honetan ezarritako funtzionamendu-arauak eta segurtasun neurriak ez betetzea.
- d)** Altzariak ateratzea edo lokalaren alboan dagoen kalea edo bide publikoa okupatzea, auzokoei eta ordena publikoari enbarazu eginez.
- e)** Lokalak edo instalazioak egoera txarrean egotea eta eskatzen zaizkien osasungarritasun eta higiene neurriak ez betetzea, batik bat komunetan garbitasun falta edo osasungarritasun falta dagoenean, eta honek eragina izatea pertsonen edo ondasunen segurtasunean, edo deserosotasun nabaria sortzea.
- f)** Debeku-ebazpenak eta jarduera etetekoak edo ixtekoak ez betetzea, neurri zuzentzaileak behin eta berriz ez betetzea edo lokalak berriz ere irekitzea, lokalok ixteko zehapen irmoa, administrazio-bidekoa, burutzepidean badago.
- g)** Baimendutako gehienezko edukiera edo aforoa gainditzea, baldin eta horren bidez pertsonendako eta ondasunendako arriskuan jartzen badira.
- h.)** Baimenik ez duten jolas-jarduerak egitea, baldin eta gogaikarritasunak sortzen badituzte.
- i).** Udaltzaingoko agenteek edo beste funtzionario batzuk eskatutako datuak ezkutatzea edo emateari uko egitea, edo beraien eginkizunak betetzen ari direla behin eta berriz sartzen ez uztea, edo udalaren ikuskapen-lanari, beste edozein modutan –aktiboki zein pasiboki- eragozpenak ipintzea, galaraztea edo trabak jartzea.
- j).** Adin txikikoei edari alkoholduak saltzea edo ematea.
- k).** Erantzukizun zibileko aseguru-poliza eta istripuetakoa edukitzeko obligazioa ez betetzea.

- I) Baimendutako ordutegiak ez betetzea; funtzionamendukoa, irekierakoa eta itxierakoa.
- II) Su-itxalgailuak ez izatea funtzionamendu-baldintza ezin hobeagoetan.

15. artikulua. Zehapenak.

1. Ordenantza honetan jasotako arau-hausteei dagozkien zigorrak Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 legeak ezarritakoaren arabera zehaztuko dira, eta kontuan hartuko dira, alde batetik, arau-hauslearen erruduntasuna eta, bestetik, administraziozko arau-haustea gertatu denean bildu diren gainerako inguruabarrak, Kode Penalak aringarritzat edo astungarritzat hartzen baditu. Hain zuzen, hurrengo hauek hartuko dira kontuan:

- a) Partikularrei edo norbanakoei eragindakoko kalteen izaera eta zenbatekoa.
- b) Sortutako arriskua.
- c) Nahitan edo sarritan egin den.
- d) Aringarri bezala zehapen-espedientea ireki aurretik, ondorio kaltegarriak murriztu edo konponduko dituen neurri zuzentzaileak hartzea.

2. Lege honetan aurreikusitako administrazio arau-haustek egiteagatik, aukeran edo metatuz, zehapen hauek jar daitezke:

- a) 300dik 24.000 eurora bitarteko isuna.
- b) Instalazioak gehienez ere urtebeterako ixtea.
- c) Ohartarazpena.

16. artikulua. Erantzuleak.

1.- Ordenantza honetan iruzur, erru edo zabarkeria huts bezala sailkatutako ekintzak edo omisioak edo ez egiteak egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira erantzule, eta hain zuzen ere azpiko hauek:

- a) Aisialdirako lokalaren jardueraren titularrak.
- b) erabiltzaileak.
- c) jabeak.

2. Erabiltzaileek egindako arau-hausteen erantzukizuna jardueraren titularrek hartuko dute baldin eta arau-haustea aurreikusteko betekizuna bete ez badute. Derrigorrezkoa den baimena ez duten isilpeko jardueren kasuan, erabiltzaileekin batera lokalaren jabeek ere erantzule izango dira.

47. artikulua. Preskripzioaz.

Ordenantza honetan aipatzen diren arau-haustek urte bateko epean preskribatuko dira, egintza burutzen denetik edo kaltea detektatzen denetik hasita, baldin eta kaltea berehalakoa izango ez balitz.

18. artikulua.- Behin-behineko neurriez.

1.- Zigor-espedita irekitzeko aginpidea duten organoek, edozein unetan, behin-behineko zenbait neurri har ditzakete, betiere arrazoiak eskainiz, baldin eta neurri horiek beharrezkoak eta egokiak badira balizko erabakiaren eraginkortasuna ziurtatzeko, arau-hausteen ondorioek bere hartan jarraitzea eragozteko eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko..

2.- Hona hemen har daitezkeen neurri horiek:

a) Jarduera aldi baterako bertan behera uztea, bere osotasunean edo zati batean, edo haren ordutegia murriztea.

c) Titularren ardurapean dauden pertsonendako, establezimenduetarako edo instalazioetarako behin behineko segurtasun neurriak hartzea, jarduerarekin zerikusia duten elementuak -arrisku-iturri direnak edo eragozpenak sortzen dituztenak- erretiratzea edo behin behineko zigilatzea barne.

19. artikulua. Bitartekaritza eta zehapenen ordezkioak.

Arazoak sortzen badira lokaleko jardueraren eta eraikineko bizilagunen artean, eta arazook zarata, usaia edo lokalean garatzen diren beste jarduera batzuen ondorio badira, udalak, zehapen-espeditaaren truke edo aukeran, bitartekari bat jar dezake sortutako arazoak konpontze aldera eta bizikidetzaren hobetzeko bitartekotzaren lehen pausu modura . Udalak, horretarako, bitartekaritza-protokolo bat izango du bizilagunen eta aisialdirako lokalen erabiltzaileen arteko gorabeherak konpontzeko. Bitartekari-figura horren erabilera hautazkoa izango da inplikaturako

alderdientzat.

Udalak, ezarritako isun edo zehapen ekonomikoen ordeztu herriaren onerakoa izango den beste lanen bat borondatez egiteko aukera ere emango du, aurretik, berariazko udal araudia eginda.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.

Ordenantza honetan ezarritako araubidea bete beharrekoa da, gainerako administrazio publikoek bakoitzak bere eskumenei jarraikiz egin litzaketen jarduketak alde batera utzita.

Ordenantza honetan ez aurreikusitakorako, Ingurugiroa zaintzeko 3/1998 legea eta lurzoru eta hirigintza 2/2006 legea aplikatuko dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Eibarko HAPNren 8.3.09.03 artikulua aldatzea, 3. atalaren "Erabilera osagarriak" c) azpiatalean: "solairu guztietan", honako paragrafo hau gehitzen da:

Ekipamendu erabilera, erabilera produktiboekin bateragarritzat hartuko da eremu hauetan: 8.2 Otaola, 9.2 Asua Erreka eta 12.1 Barrena I

XEDAPEN IRAGANKORRA.

Ordenantza honek bere aplikazio-eremupean dauden lokal guztiak araupetzen ditu, jarduerari hasiera zein unetan eman zioten kontuan hartzeke.

Urtebeteko epea ezartzen da Ordenantza hau indarrean sartzeko denetik aisialdirako lokalen erabilera erregularizatzeko. Horregatik, ordenantza hau indarrean sartu aurretik jardunean egon eta baimenik ez duten lokalek erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko dute eskatutako gainerako agiriekin batera; eta era berean, ordenantza honetan jasotako zehaztasun guztiak bete beharko dituzte, hori dena, esan bezala, gehienez URTEBETEKO epean.

Aipatutako epe horretan erregularizatzen diren lokalei ez zaie aplikatuko kokalekuaren eta lokalen artean egon behar den distantziari dagokion baldintza, 1.1 Eranskinean ezarritakoa.

AZKEN XEDAPENA:

Ordenantza hau, behin betiko onespena jaso eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testua osorik argitaratutakoan sartuko da indarrean.

1. ERANSKINA

GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALEK BETE BEHARREKO EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK.

1. BALDINTZA ARKITEKTONIKOAK.

1.1.-Kokalekua:

Plan Nagusian jardueren kokalekuari buruz ezarritakoa aplikatzeko, aisialdirako lokalak ekipamendu bezala hartuko dira, (3. erabilera) 8. mota: jolasa, aisialdia eta ikuskizunak.

Aisialdirako lokalen erabilera bateragarria izango da etxebizitza, etxebizitza, hirugarren sektorea eta ekonomia-jardueren erabilerekin.

Lokal biren sarrerako ateen arteko distantzia, gutxienik, ondokoa izango da:

- 20 metrokoa lokal biak kalearen alde batean badaude.
- 10 metrokoa lokalak kalearen alde banatan badaude.

Pegora baten ezin da lokal bat baino gehiago zabaldu.

Jarduerak zuzeneko sarbide bat izango du bide edo eremu-libre legez sailkatutako lurretatik, biak herri-erabilerakoak, 0,80 m zabal izango da 100 m² erabilgarri bakoitzeko eta 1,80 m.ko zabalera izango du 100 eta 200 m² bitarteko azalerakoa bada.

1.2.- Altuera libreak.

Behe-solairuan dauden lokalek gutxienez 2,8 metroko altuera librea izan behar dute, egongelako zorutik sabairaino neurtuta.

Lokala lehen solairuan jartzeko baimena izanez gero, haren gutxienezko altuera librea 2,50 metrokoa izango da, apaingarriak ere barne.

1.3.- Lokalen neurriak.

Lokalen gutxienerako azalera erabilgarria, beheko solairua neurtuta, hogeita metro koadrokoa (20 m²) izango da.

Lokalak solairuartea baldin badu, hori ez da kontuan izango.

2. SUTEEN KONTRA BABESTEKO BALDINTZA OROKORRAK

Aisialdirako erabiltzen diren lokalek SS-OD-EKTan eraikinetako suteen aurkako segurtasun baldintzei buruz konkurrentzia publikorako erabileretarako xedatutakoa beteko dute, jarraian zehazten diren xehetasunak ere aintzat hartuta.

2.1.- Okupazioa.

Gehienez baimendutako edukiera errespetatu beharko da:

Pertsona bat bi metro koadroko.

Gehieneko edukiera hau lokal barruko begi-bistakoa den toki batean jarri beharko da.

2.2.- Banaketa eta material-motak.

Lokalen barrualdeak, gutxienez, morteroz zarpiatuta egon behar du, zurituta eta pintatuta.

Ordenantza honen mendeko establezimenduetan erabili beharreko materialek SS-OD-EKT kodean suteen aurkako babes-baldintzei buruz zehaztutako portaera izango dute suteen aurrean.

Apainketa-materialik edo sua erraz har dezakeen materialik ez dira erabiliko,, suteen kontrako tratamendua ez badute.

2.3.- Suteen aurkako instalazioak.

Lokal orobat, CO₂-zko su-itxalgailu (1) bat izango dute kaxa elektrikoaren ondoan eta 6 kg-ko itxalgailu balioaniztun bat (1) 21A-113B gutxienerako eraginkortasuneko, solairuko 125 m² bakoitzeko, lokalaren edozein puntutatik itxalgailura 15 metro baino gutxiagoko distantzia izateko moduan.

Su-itxalgailuak erraz ikusteko eta hartzeko toki aproposetan jarriko dira; hala, itxalgailuaren goialdeak lurretik 1,70 metrora baino gutxiagora egon beharko du. Itxalgailuak erraz topatzeko moduan ez badaude, UNE 23 033 arauan zehaztutako seinaleen bidez adierazi beharko da non dauden.

Aipatutako erabilera duten lokalek edo eraikinek 250 m²tik gorako azalera erabilgarria izanez gero, sute-aho ekipatuak instalatuko dira, eta 25 mm-ko mahukak

izango dituzte establezimendu osoa babesteko beste.

Lokalek eta eraikinek 1.000 m²-tik gorako azalera badute, ur-hartuneak ere beharko dituzte kanpoaldean.

Lokalek 50 lagun baino gehiago har baditzakete, larrialdiko argiteria izango dute 50 lagun baino gehiago kanpora ateratzeko aurreikusitako ibilbideetan, ibilbide horien irteeretan, komunetako

irteeretan, lokalen argiteria-instalazioaren banaketa-koadroetan eta suteen kontra babesteko araudian jasotako gainerako kokalekuetan.

Nolanahi ere, irteerako ate guztietan "irteera" egongo da idatzita, eta seinale horrek UNE 23 034 arauaren baldintzak beteko ditu.

3. BALDINTZA TEKNIKO SANITARIOAK ETA INGURUMEN-BALDINTZAK

3.1.- Sukaldeak.

Sukaldea edo janaria prestatzeko gailuak jartzea ez da baimenduko.

3.2- Komunak.

Komunetako gelek erosotasunez erabili ahal izateko adinako neurri aproposak izango dituzte.

Komun- gela bakoitzak 1,20 m² izango du gutxienez, eta aldeetako batek 0,80 m eduki beharko du gutxienez, Irisgarritasuna Sustatzeko Legeari jarraikiz eska daitezkeen baldintzak bazter utzi gabe.

Komunetako gelak behar adina aireztatutako lokaletan jarriko dira, argiteria arruntez ondo argizatuta, eta seinaleztatze- eta larrialdi-argiak ere izango dituzte; horrez gain, komunak izango dituzte, eta zoru iragazgaitza; hormak ere iragazgaitzak izango dira, gutxienez bi metroko altuerara arte, eta lauzaz edo erraz garbitzen den beste material beiraztaturen batez estalita egongo dira.

Lokalean gehienez ere 50 lagun sar badaitezke, komun bakarra jarri ahal izango da.

Lokalean 100 lagun bitarte sar badaitezke, bi komun-gela jarri beharko dira; gela bakoitzak komun bana edukiko du, eta konketa jartzeko gune bateratua izango da.

Lokalean 200 lagun bitarte sar badaitezke, bi komun-gela jarri beharko dira; bat emakumezkoentzat eta beste bat gizonezkoentzat, elkarrengandik guztiz bereiz.

3.3.- Instalazio elektrikoa.

Behe-tentsioari buruzko erregelamendu elektroteknikoa bete beharko du (2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 ED edo haren ordezkia).

3.4.- Argiztapena.

Lokalak argiztapen naturala eta/edo artifizialeko eduki beharko du.

Argiteriak behe-tentsioari buruzko erregelamendu elektroteknikoan jasotako instalazio- eta abiatze-baldintzak bete beharko ditu (2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 ED edo haren ordezkoa).

3.5.- Aireztapena.

Lokal itxiek behar adinako aireztapena izango dute.

Aireztapena naturala izango bada, gela bakoitzaren azaleraren % 10 besteko tartea irekitzeko aukera ematen duten leihoak jarriko dira.

Aireztapen naturalik ez badago, aireztapen artifizialeko sistemaren bat jarriko da, gela bakoitzaren edukierari egokitutako potentziaduna, eta sistema horrek gutxienez 8 aldiz berriztatuko du airea orduko, konkurrentzia publikoko guneetan, eta 6 aldiz orduko, atsedene-guneetan eta languneetan.

3.6.- Klimatizazio- eta berokuntza-instalazioak.

Klimatizazioko eta/edo berokuntzako instalazioak edukiz gero, 2007ko uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa beteko da, hartan onartu baitzen Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamendua.

Erregaitzat gasa erabiltzen bada, etxebizitza-, elkarte edo merkataritza-erabilerako lokaletako gas-instalazioen gaineko Erregelamenduan ezarritakoa ere bete beharko da (1993ko urriaren 22ko 1853/1993 ED).

4. ZARATAREN ETA DARDAREN TRANSMISIO-BALDINTZAK

Lokalaren edo zarata-hots handiena jasaten duen etxebizitzaren barruan, leihoak itxita daudela,

ez da inoiz 40 dB(A)ko maila gaindituko 9:00etatik aurrera ez eta 30 dB(A)ko maila ere

22:00etatik aurrera.

4.1.- Leihoak.

Aireztapen naturalari bidea ematen dioten leihoak irekitzen direnean, kontuan hartuko da beti lokal barruko zaratak ez diola inori traba egin behar. Erabat ireki ahal izango dira, jendeari zerbitzua ematen ez zaion orduetan.

4.2.- Makinak.

Dauden makina guztiak dardara moteltzeko osagaiekin ainguratuko dira. Aireztapen-sistemak —halakorik badago— ez die auzokoei trabarik eragingo ez zaratagatik ez

dardarengatik.

4.3.- Musika-instalazioak.

Establezimendu publikoetan soinua erreproduzitzeko jarritako edozein sistema musika instalaziotzat

joko da. Zenbait musika-gailu —hala nola irratia, telebista edo musika-haria— erabiltzeko baimena

eman ahal izango da, nahiz eta lokalak intsonorizazio-proiekturik eta ate bikoitzik ez eduki, baldin eta soinu-maila lokalaren barruan 65 dB(A)n mugatzeko sistema zigilagarri bat badu.

Aurreikusitako gailuek gehieneko muga hori gainditzen badute, intsonorizazio-proiektua aurkeztu

beharko da, eta, proiektu horretan, intsonorizazioaren gaineko kalkulu teknikoak zehaztuko

dira.

4.4.- Aire-zarataren isolamendua.

Lokalean aurreko atalean aipatutako zarata-mailatik gorako musika-gailurik jartzea aurreikusten ez bada, lokalaren eta aldameneko lokalen edo etxebizitzaren artean HR-OD-EKT kodean zehaztutako soinu-isolamendua jar dadin eskatuko da.

Bestela, Ostalaritzako Jarduerak eta Antzekoak Ezartzeko eta Funtzionatzeko Udal Ordenantzan ezarritako intsonorizazio-irizpideak bete beharko ditu lokalak, haren barruan egiten den zaratari dagokionez.

Musika-, kantu- edo dantza-jarduerak egingo direla aurreikusten bada, orduan ere intsonorizazio-

proiektua aurkeztu beharko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko

1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean jasotako jarduera sailkatuei dagokien lizentzia

izapidetzean ezartzen dira

A1 Ingurumen Memoria: Jarduerari buruzko memoria deskriptiboa eta ingurumen-alderdiak ere aintzat hartzen

dituena; jarduera garatzeko ezarritako neurriak ere bai. Hona edukiotako batzuk:

1.1. **Lokalaren deskripzioa:** azalerak edo eremuak (erabilgarriak eta eraikiak), guztizkoak eta partzialak

erabileraren arabera, baita lokalak eraikin barruan duen kokapena ere, haren sarbideak eta komunikazioak.

1.2. **Fatxadaren edo fatxaden argazkia/k** koloretan.

1.3. **Jardueraren deskripzioa:** helburua eta ezaugarri teknikoak, ekoizpen prozesua, makinak, erregaiak, higiene instalazioak...

Aurreikusitako arriskuak (zarata dela, kea, usaina, material erregaiak...).

1.4. **Makinen deskripzioa eta ezaugarri teknikoak,** jarduerak funtzionatzeko behar dituenak eta, hala bada kasua, lokala aireberritu edo girotzeko instalazioen ezaugarriak.

1.5. **Lokalaren edo jardueraren aurrekariak:** deskribatzea edo azaltzea, jarduera BERRIA, ERABERRITZEA edo lehendik dagoen jarduera bat LEGEZTATZEA nahi den.

1.6. **Aplikatu beharreko araudia betetzen dela justifikatzea.** HAPO, Udal Ordenantzak, zarataren araudia, irisgarritasunarena, suteen kontrako babesa, osasun arauak...

1.7. Berriazko erregelamenduen mende dauden instalazioen kasuan (instalazio elektrikoa, termikoa, gasarena...)

haietako bakoitzari **dagokion baimena** eta kasu bakoitzean industria segurtasunari buruzko **araudiek**

xedatzen duten zerbitzua abian jartzearen agiria aurkeztea.

A2. Planoak.

2.1. Jardueraren **kokapena** (gutxieneko eskala 1:5000).

2.2. **Kokalekua:** lokalaren edo eraikinaren leku zehatza seinalatuta eta finkaren gainerako zatiarekin erlazionatuta (gutxieneko eskala 1:500).

2.3. **Oin edo solairu kotatuak:** lokala osatzen duten maila guztien **gaurko egoera islatzen duten planoak,** ondokoak zehaztuta:

Banaketa eta erabilerak, lokala osatzen duten gela guztienak, kotak eta eremuak ere azalduta (eskala, 1/50 edo antzekoa) irisgarritasun arauak betetzeko justifikazioa barne.

Instalazioak: aireztatzea, girotzea, makineria, suteen kontrako babesa, saneamendua, iturgintza, elektrizitatea (1/50 eskala edo antzekoa, irakurtzeko modukoa).

2.4. **Sekzio kotatuak** (1/50 eskala edo antzekoa).

Sekzioa/k (luzetara eta zeharretara), eremu edo guneen alturak eta erabilerak adierazita, hodiak, instalazioak, makineriak...

Sekzioa, bere sarbideek eta sestra-kotek trazatutakoa.

2.5. **Fatxada/k**, oraingo egoeran (1/50 eskalan edo antzekoan).